

2003-02-19
kioskoa

Eneko Bidegain

Mundu bat
gerraren aurka

Sud Ovest-en ustez «gerraren aurkariak Bushi zuzendu bazaizkio ere, orain, urgentziaz Saddam makurrazteko mugitu behar dira». Halere, Frantziako egunkariak harro daude, joan den asteburuko mobilizazioen ondotik. Batetik, «gerraren aurkako iritzi europarraren agertzeak frogatzen du etorkizun komunaren kontzientzia azkarragoa dela herritarren baitan, zenbait buruzagiren baitan baino» dio **Liberation**-ek. **Le Monde**-ek azpimarratu zuen «arduradunak beren iritzi publikoaren kontraesanean» jarri direla.

Le Figaro-k ikuspegi kritikoarekin begiratu zituen azken aldiko manifestazioak. Estatuaren arteko zatiketa aipatzeaz gainera, «manifestariak berek eta berentzat finkatzen dute zer izan daitekeen atzerri politika komuna» komentatu zuen. Eskuineko egunkariak «amerikar diplomaziari» leporatu zion «ezker bakezaleari indar ematea Europa guztian. Berrogei urteko propaganda sobietarrak obratu ez zuena, Bushen administrazioak zenbait hilabetez lortu du».

Baten kezka bertzearen esperantza bihurtzen da. **L'Humanite**-k gerraren kontrako mugimendua baino gehiago ikusten du azken aldiko mobilizazioetan. «Garai berri baten hasiera finkatzen dute». Egunkari komunistaren ustez, «Seattle eta Porto Alegreko elkarretaratzearan jarraipen» gisa ulertu behar dira. «Amerikar inperialismoak zuzendu munduari uko egiten diote». «Kapitalismoaren» aurkako mugimendua dira garatzen ari. «Kapitalismoak gerra ekonomikoak, miseriak, desorekak, giza eskubideen ukapenak eragiten ditu. Urgentzia lehen-tasun uzkalteza da: gizakiak, gerra dakarren dirua baino lehen».

Egunkaria 3.788. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Begoña Zubelzu

Publizitatea: Igor Sota

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707


Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK - Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Euskararik gabeko NUP

UPNk eta PSNk aurkeztu diete gainontzeko alderdiei Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskararen Legearen zirriborroa. Eta horixe izango da, funtsean, azkenean legearen beraren edukia. Bi alderdiek bat egin dute NUPen euskara gero eta gehiago murrizteko eta euskaldunei NUPen eskubideak ukatzeko. Euskarak gaur egun duen leku eskasa baino eskasagoa izango baitu aurrerantzean: Irakasle eta Filologia ikasketak eta hautapen libreko zenbait ikasgai. Horrez gain, NUPen estatutuak berritzeko prozesuan daude, eta bai NUPeko Euskararen Legea eta NUPeko estatutuak osagarriak dira. Alegia, euskara eta euskaldunak beti galtzaile.



AEBetako soldaduen entrenamenduak Kuwaiten.

Iraken inguruko bigarren
ebazpenaren iragarpena

Wall Streetek gora egin zuen atzo, Europako Batasuneko agintarien bileraren ondotik, oraindik Iraken aurkako eraso gelditzeko aukera dagoela uste izanda. Etxe Zuriak, aldiz, eraso hori ahalbidetuko duen beste urrats bat egin zuen atzo. Aste honetan edo hurrengoan Nazio Batuen Erakundearen aurrean Iraken inguruko beste ebazpen bat aurkeztuko duela adierazi zuen Washingtonek. Ebazpenak indarra erabiltzeko aukera bilduko duela uste da, eta, onartzen bada, erasoan parte hartuko luketen AEBetako 100.000 soldaduek «ekiteko gertu» daudela esan zuen haien agintari militarrek.

Torturaren itzala

Eusko Jaurlaritzako Herraingoa Sailak atxilotuekiko bi neurri abiatu ditu, tratu txarren salaketak faltsuak direla erakutsi nahian: senideekin harremanetan jartzea eta inkomunikazioa ezarri aurretik osasun azterketa bat ahalbidetzea. Abiapuntu bat bada ere, tratu txar fisiko eta siki-koen itzala ezabatzeko, ordea, beste zenbait neurri ere beharrezkoak dira. Funtsezkoena inkomunikazioa ez erabiltzea eta atxilotuari komisarian konfiantzako abokatuarekin deklaratzeko eskubidea aitortzea da. Halaber, gogoratu behar da egungo auzitegiak ez direla tortura zigortua izango den bermea, eta tratu txarren hainbat salaketa sinesgarriak izan direla nazioarteko adituentzat.

Tortura salatzen duen manifestazioa Durangon, iazko abenduan.

Hildako mordoa Hego
Koreako Daegu hirian

Sekulako sutea gertatu zen atzo Hego Koreako Daegu hiriko metroan, eta ehun eta berrogei pertsonatik gora hil dira. Itxura guztien arabera, eta agintariak eta metroan une hartan zeuden zenbait lekukok jakinarazi zuten, nahita piztu zuen norbaitek sua. Hildako kopuruak gora egin dezake, desagertuak ere asko direlako. Triskantza gertatu bezain pronto, gizonezko bat atxilotu zuen Hego Koreako Poliziak, hura ospitalean artatzen ari zirela, lekukoaren arabera berak eman omen ziolako su Daeguko metroari. Historian metro batean gertatutako tragediarik handienetakoa da.